

> URBANISME, LOGEMENT, ÉQUIPEMENT, TRAVAUX

Depuis maintenant 15 ans, même s'il s'est construit beaucoup de logements et qu'il continue de s'en construire, la difficulté d'accès au logement est devenue majeure sur notre territoire, notamment pour les Ezpeletar qui souhaitent rester au village ou revenir y vivre.



HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA, EKIPAMENDUAK, OBRAK

Azken 15 urteetan etxebizitza ugari eraiki badira ere, eta oraindik ere eraikitzen ari badira, etxebizitzarako sarbidea arazo nagusi bihurtu da gure lurraldean, bereziki herrian bizi nahi duten edo bertara itzuli nahi duten Ezpeletarrentzat.

> PROJET AMÉNAGEMENT MARCHÉ COUVERT



Merkatu estaliaren antolatze proiektua.

> **Optimiser le bâti existant et favoriser l'accès à ces logements aux locaux** sera une priorité ainsi que la création de réserves foncières.

> **L'usage du marché couvert** (une ½ journée par semaine), l'occupation de certains locaux communaux (centre équestre, maison Camadro, Elizaldea, ancien presbytère) nous ont amené à repenser leur destination.

> **Lehendik dagoen eraikuntza optimizatzea eta etxebizitza horietara tokiko biztanleen sarbidea errextea** izango dira lehentasunak, baita lur-erreserbak sortzea ere.

> **Merkatu estaliaren erabilera** mugatuak (astean egun erdi), eta zenbait herriko-lokalen ez erabiltzeak (zentro zaldizalea, Camadro etxea, Elizaldea, presbiterio zaharra) haien etorkizuneko erabilerak berriz pentsatzera eraman gaituzte.



> **Ouverture et adaptation du marché couvert en salle multi-activités.**

> **Le bâtiment municipal dit « des cantonniers », adapté** pour répondre aux besoins des associations, regroupera le gaztetxe, le comité des fêtes, le local des chasseurs...

> **Une aire de jeux sécurisée et attractive** sera installée au centre du village.



> **Les services techniques municipaux rejoindront l'ancien centre équestre** : les lieux permettront aussi le stockage du matériel du groupement des associations et de Gau Argi.

> **L'école de Basseboure** : le rez-de-chaussée restera le siège de l'association Basaburutarrak et les locaux seront utilisés par les associations du village.

> **La maison Camadro** permettra de fournir des logements accessibles aux Ezpeletar.

> **L'ancien presbytère servira de logement d'urgence temporaire**, (violences conjugales, migrants, dortoir gîte d'étape).

> **La maison Elizaldia** regroupera le centre de loisirs et la Maison pour tous afin de favoriser les liens intergénérationnels.

> **Le domaine public et les bâtiments communaux (WC) seront rénovés** pour permettre une réelle accessibilité pour toutes les personnes à mobilité réduite.

> Herriaren erdigunean **jolas-eremu seguru eta erakargarri** bat ezarriko da.

> **Merkatu estalia ireki eta egokitzea, erabileraren areto bihurtzeko** (proiektuaren planoaren arabera) «Kantonierren» izeneko herriko etxe-erakina egokituko da elkartearen beharrei erantzuteko; bertan bilduko dira gaztetxea, besta komitea eta ehiztarien lokala, besteak beste.

> **Herriko zerbitzu teknikoak zentro zaldizale zaharrera lekuz aldatuko dira**; gune horiek, gainera, elkartearen batasunaren eta Gau Argi elkartearen materiala biltzeko erabiliko dira.

> **Basaburuko eskola**: Basaburutarrak elkartearen egoitza izaiten jarraituko du eta lokalak herriko elkarteek erabiliko dituzte.

> **Camadro etxeak** gazteentzat, familientzat eta adinekoentzat etxebizitza eskuragarriak eskaintzeko aukera emango du.

> **Presbiterio zaharra aldi baterako larrialdi-ostatu gisa erabiliko da** (indarkeria matxistaren biktimak, migratzaileak, Baztango Bideko aterpetxe-etapako logela).

> **Elizalde etxeak** aisialdi-zentroa eta Denen Etxea bilduko ditu, belaunaldien arteko loturak sustatzeko.

> **Espazio publikoak (espaloiak) eta udal-erakinak (komunak) egokitu eta berrantolatuko dira**, mugikortasun urriko pertsona guztientzat egiazko irisgarritasuna ahal emateko.



Ancien centre équestre (bâtiment communal).
Zaldi zentro ohia (herriko batimendua).